

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

108. zenbakia

Data 2007-06-01

15365 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Hondartzak aprobetxatu eta erabiltzeko ordenantza. Behin betiko onespena.

DONOSTIAKO UDALA

Idazkaritza Nagusia

Donostiako hondartzen erabilera eta aprobetxamenduaren Udal Ordenantzaren behin betiko onespena.

Donostiako Udalak 2007ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, Donostiako Hondartzen erabilera eta aprobetxamenduaren udal Ordenantzaren behin behingo onespena erabaki zuen eta informazio publikorako epea zabaldu zuen, edozein pertsonak egokitzen zituen iradokizunak eta alegazioak aurkezteko.

Epea amaituta ez da iradokizunik ezta alegaziorik ere aurkeztu eta ondorioz, Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko, 49 c) artikuluan agintzen dena aplikatuz, behin-behineko akordioa behin betiko bihurtu da.

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, behin-betiko onartutako Estatutuak argitara ematera goaz.

Donostia, 2007ko maiatzaren 23a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Idazkari Nagusia.

(3253) (6334)

Donostiako hondartzen erabilera eta aprobetxamenduaren Udal Ordenantza.

ZIOEN ADIERAZPENA

Itsasbazterren Legeko (1988ko uztailaren 28koa) 3.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraituz, Donostiako udalerriko hondartzak Estatuko itsas eta lur jabariko ondasun dira, Espainiako Konstituzioko 132.2 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Itsasbazterren Lege horretako 115. artikuluan, udalari eskumenak esleitzen dizkio Estatuko itsas eta lur jabari publikoan. Eskumen horiek, hondartzei dagokienez, hauek dira:

— Hondartzak eta bainu toki publikoak garbitasun, higiene eta osasungarritasun egoera egokian mantentzea.

— Giza bizitzaren segurtasunari eta salbamenduari buruz Estatuko Administrazioak emandako arau eta jarraibideak bete daitezzen zaintzea.

— Toki araubideko legedian ezarrita dauden zuzeneko nahiz zeharkako kudeaketa moduetatik edozein erabiliz, hondartzetan ezartzen diren denboraldiko zerbitzuak ustiatzea, halakorik baldin bada.

Udal ordenantza honen asmoa da itsasbazterren legediak udal honi esleitzen dizkion eskumen horiek arautzea, Donostiako hondartzak albait egoera onenean mantentzearen.

Ordenantza honekin, hondartzen erabilera publikoa bermatu nahi da (erabilera orokorrak eta bereziak arautuz), eta hondartzen osotasuna eta kontserbazioa egokia ziurtatu.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xede da Donostiako udalerriko itsasertzeko hondartzen erabilera egokia arautzea. Horretan, bateratu egin nahi dira, batetik, guztiek hondartzak gozatzeko duten eskubidea, eta, bestetik, Udalak, bere eskumenen esparruan, hondartzak ondo erabil daitezzen zaintzeko duen betebeharra, bizi kalitatea babestu eta hobetzeko, eta ingurumena aldeztu eta lehengoratzearren.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza honek Donostiako hondartzetan egi daitezkeen erabilera eta jarduera guztiei eragiten die. Betiere, kontuan hartu beharko dira beste Administrazio batzuek gai honetan dituzten eskumenak.

3. artikulua. Lurralde eremua.

Ordenantza honen edukia, Donostiako udalerriko hondartza hauetan izango da aplikagarri: Zurriolako, Kontxako, Ondarretako eta Santa Klara uharteko hondartzetan, alegia.

II. TITULUA

HONDARTZAK ERABILTZEKO ARAUAK

4. artikulua. Erabilera komun orokorra.

1. Hondartzen erabilera librea, publikoa eta doakoa izango da, hondartzen izaerarekin bat datozen erabilera arruntak egiteko, hala nola: Paseatzea, egotea, bainatzea, nabigatzea, ontziratzea eta ontzitik irtetea, lehorreratzea, eta inolako obra eta instalaziorik behar ez duten antzeko ekintzak, legeekin, arautegiekin eta honako ordenantza honekin bat etorritik egiten direnak.

2. Intentsitate, arrisku edo errentagarritasun ezaugarri bereziak dituzten erabilerak, eta obrak eta instalazioak behar dituztenak, ezingo dira egin; salbu eta erreserba, esleipena, baimena edota lagapena baldin badute. Horrelakoetan, Itsasbaterren Legean xedatutakoari men egin beharko zaio, bai eta beste lege berezi - batzuetan xedatutakoari, halakorik izanez gero. Ezingo da batere eskubiderik alegatu, usukapioa dela eta, edozein dela ere igarotako denbora.

3. Hondartzan eta itsasoan modu baketsuan paseatzeak, egoteak eta bainatzeak lehentasuna dute beste edozein erabileraren gainetik.

5. artikulua. Bainularien segurtasuna.

1. Giza bizitzen segurtasunari eta salbamenduari buruz dagokiona prebenitzearren, Zurriolako, Kontxako, Ondarretako eta Santa Klara uharteko hondartzek salbamendu eta sorospen zerbitzuak izango dituzte, baina denboraldian.

Ordenantza honen ondorioetarako, «bainu denboraldi»tzat jotzen da urte bakoitzeko ekainaren 1etik irailaren 30era bitarteko aldia.

2. Salbamendu eta sorospen zerbitzuek Udalak zehaztutako ordutegian baizik ez dira hondartzako salbamendu postuetan zerbitzuan izango. Ordutegi hori hondartzako sarbideetako argibide karteletan azalduko da.

3. Salbamendu eta sorospen zerbitzuek mastak jarriko dituzte hondartzetan. Masta horietan, bandera bat altxatuko da; banderaren kolorearen arabera adieraziko da ea itsasoaren egoera zenbateraino den egokia bainatzeko.

Zerbitzu horien ardura, alde hauek baizik ez dira: Bainatzeko balizatuta daudenak, edo banderekin bainatzeko gunetzat seinaleztatuta daudenak.

4. Itsasoaren egoera bainatzeko zenbateraino den egokia adierazteko, metodo hau erabiliko da:

Bandera gorria: Bainatzea debeku da.

Bandera horia: Baina daiteke, kontuz ibilita.

Bandera berdea: Bainatzea libre da.

Zurriolako hondartzan, bainatzeko gunea bandera urdinez mugatuko da.

5. Bainularien betebeharra da salbamendu eta sorospen zerbitzuek segurtasunaren alde egiten dizkieten oharrak eta jarraibideak betetzea; bai eta orain diren xedapenak eta gerora organismo eskumendunek emandakoak betetzea ere.

6. Bainu denboralditik kanpora edo salbamendu eta sorospen zerbitzuetarako ezarritako ordutegitik kanpora bainatu nahi dutenek, euren ardurapean egingo dute, ez beste inorenean.

Orobat, euren ardurapean bainatuko dira, eta ez beste inorenean, baldin honela bainatzen badira:

a) Salbamendu eta sorospen zerbitzuen ohar eta jarraibideei jarraitu gabe.

b) Bainatzeko balizatuta dauden gunetatik edo banderekin bainatzeko zonatzat seinaleztatuta dauden gunetatik kanpora.

7. Elbarritasun edo gaixotasunen bat izanda, bainatzeak arriskuren bat dakarkien pertsoneri, gomendatzen zaie horren berri eman diezaietela salbamendu eta sorospen zerbitzuei. Horrela, zerbitzu horiek neurri egokiak hartuko dituzte, behar izanez gero.

6. artikulua. Hondartzen zaintza.

Donostiako udalerriko hondartzek udaltzainak izango dituzte, eta udaltzain horien ardura izango da ordenantza honetan ezarritakoa betetzen dela zaintzea.

7. artikulua. Aldi baterako aparteko jarduerak.

1. Hondartzetan, aldi baterako aparteko jarduera edo instalaziotzat jotzen dira honako hauek: Jardueraren izaeragatik, ohiz kanpo egiten direnak, egun eta toki jakin batean.

2. Donostiako hondartzetan aldi baterako aparteko jarduera edo instalazioa egiteko, beharrezkoa da Udalaren administrazio baimena lortzea. Gainera, daitekeena da Gipuzkoako Kosta Zerbitzuaren edota gai horretan eskumena duen beste Administrazio baten baimena ere behar izatea.

3. Apartekotzat jotako edozein jarduera egin nahi duen edonork, idatziz eskatu behar du. Eskaera idatzia, gutxienez ere jarduera egin baino 45 egun lehenago aurkeztu behar da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (30/1992 Legea) xedatutako bideetako edozein erabilita.

4. Aparteko jarduera baimendu aurretik, berme bat eratu beharko da. Berme horren zenbatekoak nahikoa izan behar du, behar izanez gero, jarduera egiteak eragin ditzakeen garbitze lan bereziak ordaintzeko eta hondatzen den hondartzetako materiala ordezkatzeko ordaintzeko.

8. artikulua. Erabilera debekatuak.

1.

a) Kontxan eta Ondarretan behar bezala balizaturiko bainuguneetan, edota Zurriolan eta Santa Klara uhartean banderen edo adierazleen bidez bainularientzako gordetakotzat seinaleztatutako guneeetan, debeku izango da surfean, bodyboardean, piraguismoan eta antzekoetan aritzea, bai eta kirol eta aisia nabigazioa egitea, eta belaz nahiz motorez mugitzen den edo gila zurruna duen edozein ontzi edo bitarteko flotatzaile erabiltzea ere. Ontzia itsasoratu edo lehorreratzeko, behar bezala seinaleztaturiko kanalak erabili behar dira.

Debeku horretatik salbuetsita daude salbamendu eta sorospeneko zerbitzuekin, garbiketakoekin, uretako elementuak konpontzekoekin, eta poliziaren edo agintaritzaren eskumendunaren zerbitzuekin erlazionatutako -ontziak.

b) Urpeko arrantzaleek debeku dute hondartzan fusila kargatuta dutela itsasora sartzeko eta itsasotik irtetea, bai eta tresna hori edo pertsonen segurtasunerako arriskutsuak izan daitezkeen urpeko arrantzako beste tresna batzuk lehorrean manipulatzeko ere.

2. Debeku da, orobat, hondartzetan:

a) Ibilgailuak baimenik gabe aparkatu eta zirkulatzeko.

b) Kanpalekuak eta kanpaldiak. Kanpalditzat hartuko da kanpin dendak jartzea edo bizitzeko diren ibilgailu nahiz atoiak jartzea. Kanpalekutzat joko da kanpaldi antolatua, indarrean den araudian ezarritako zerbitzuak dituen.

c) Publizitatea egitea horma irudien edo panelen bidez, edota soinuak nahiz ikus-entzunezko bitartekoen bidez. Publizitatearen debeku hau aplikagarria da, edozein dela ere hedatzeko bidea edo kokalekua. Behar bezala baimendutako aparteko gertakizunen kasuan, baimenean zehaztutako baldintzetan egin ahal izango da publizitatea.

d) Kirolean jardutea, hondartza osoan, salbu eta kirolgune gisa seinaleztaturiko tokietan. Kirolgune horiek, hondartzara sartzeko bideetan jarritako argibide karteletan adieraziko dira.

e) Hondartzako udal ekipamenduko materiala erabiltzea, dela horiek erabiltzeko orduetatik kanpo, dela ez dagozkion xedeetarako.

f) Udalak jarritako itzalkinak erabiltzea, baldin alokatu ez badira; baita erabiltzeko unean hartuta ez badaude ere.

g) Garbiketa zerbitzuen ohiko lanak oztopatu edo galaraztea; eta, bereziki, udaldian gaua igarotzea.

h) Irrati aparatuek, kaseteak, disko konpaktuak edo antzekoak, musika tresnak, edo hotsa egiten duen beste edozein gailu, inguruko gizabanakoei eragotzi gabe erabili beharko dira. Belarritako entzungailuak erabiltzea gomendatzen da.

i) Kanpin mahaiak edo antzekoak erabiltzea.

3. Udaltzainen ardura berezia izango da hemen azaldutako arauak bete daitezen zaintzea.

III. TITULUA

GARBITASUN ARAUAK

9. artikulua. *Garbiketa zerbitzuak.*

1. Donostiako hondartzak garbitasun egoerarik onenean mantentzearen, Udalak edukiontziak eta zakarrontziak jarriko ditu udalerriko hondartzetako bakoitzean barreiatuta.

2. Udalak, horretarako kontraturiko enpresaren bidez, edukiontziak eta zakarrontziak hustu eta garbituko ditu, bai eta harearen azaleko geruzarekin nahasten diren hondakinak, paperak, zigarro mutxikinak, janari hondarrak eta abar hareetatik kendu ere.

Udaldian, zerbitzu horiek egunero egingo dira, betiere 10:00etarako bukatzen saiatuta.

10. artikulua. *Debekuak.*

Debeku da, hondartzen erabiltzaileentzat:

a) Zaborrak eta hondakinak, horretarako jarritako edukiontzi eta zaborrontzietatik kanpora bota edo uztea.

b) Zaborrontzietan objektu handiak sartzea, adibidez zerriak, itzalkinak, lastaira pneumatikoak, edo antzekoak.

c) Hondartzetako zaborrontzietan etxeko zabor poltsak edo saltokietako zabor poltsak sartzea (edozein motatako saltokia dela ere; bai hareatik kanpo dauden saltokiak, bai hondartzan bertan daudenak).

d) Beirazko ontziak zakarrontzietara edo horretarako ez diren edukiontzietara botatzea.

IV. TITULUA

HIGIENE ETA OSASUN ARAUAK

11. artikulua. *Informazioa.*

1. Erabiltzaileek eskubide dute Udalak jakinaraz diezaiela urak bainatzeko egokiak ez direla, baldin ur horiek indarrean diren arauetan eskatutako gutxieneko kalitate irizpideak betetzen ez badituzte.

2. Horretarako, Udalak, hala eskatzen dionari, bainuguneek une horretan duten higie eta osasun egoeraren informazioa emango dio. Bainu denboraldian, informazio hori informazio taulen bidez emango da.

12. artikulua. *Neurriak.*

Udalak seinaleztatu egingo du bainua debekatuta dagoela, eta bainuguneak ixteko beharrezko neurriak hartuko ditu, uren kalitateak gizabanakoentzat osasun arriskua dakarrenean.

13. artikulua. *Animaliak hondartzan izatea.*

1. Debeku da, bainu denboraldian, txakurrekin edo beste edozein etxabererekin hondartzan sartzea. Gainerako urte sasoietan, Zibismoaren Udal Ordenatzako 29. eta 30. artikuluetan adierazitakoari jarraituz jokatu da.

2. Baimenduta dago itsuaurreko txakurrak hondartzan izatea, zerbitzatzen duten pertsona lagun dutela. Txakurra daramanak eta jabeak, dena dela, nork bere erantzukizunak izango ditu, eta txakurra daramanak neurriak hartu beharko ditu gainerako erabiltzaileei eragozpenak edo arriskuak ez sortzeko.

3. Aurreko 1. idatz zatiko debekua hausten dutenek, edo 2. idatz zatian agindutako baldintzak betetzen ez dituztenek, berehala utzi beharko dute hondartza, aberearekin batera, agintaritzaren agenteek hitzez eskatuz gero. Agente horiek salaketa partea egingo dute, dagokion zigor espedienteaz izapide dadin.

14. artikulua. *Debekuak.*

1. Debeku da itsasoan nahiz hondartzan kaka edo pixa egitea.

2. Debeku da itsasoko uretan norbere burua garbitzea xaboia, gela edo xanpua erabiliz, edota antzeko edozein produktu erabiliz.

3. Debeku da dutxei, oin garbitzekoei, komunei eta, oro har, hondartzan diren hiriko altzariei berezko duten erabilerarako ez beste ezertarako erabiltzea. Hartara, ordenantza honetan xedatutakoari jarraituz zigortuko dira horiek bestelakoetarako (hala nola, sukaldeko tresnak garbitzeko; xaboia, gela, xanpua edo beste edozein detergente erabiliz norbere burua garbitu edo dutxatzeko; hondatzeko) erabiltzen dituztenak. Gainera, bestelako erantzukizunak ere eskatu ahal izango zaizkie, egintza horiengatik.

4. Debeku da hondartzan sua egitea.

V. TITULUA

DENBORALDIKO ZERBITZUAK HONDARTZETAN

15. artikulua. *Itzalkinen zerbitzua.*

1. Zurriolako, Kontxako eta Ondarretako hondartzetan, udaldian, itzalkinen zerbitzua egingo da (eguzki

oihalak, karpak eta eguzkitakoak).

2. Zerbitzu horrek, urteko tasa ordainduz gero, eskubidea ematen du itzalkina eta hiru aulki zuri erabiltzeko, eta itzalkinak hartutako tokia bakarrik okupatzeko, udaldian. Udaldi horren egunak urtero zehaztuko dira; oro har, ekainaren 15etik irailaren 15 arte izango da.

Itzalkina erabiltzeko denbora, zerbitzuko langileen ordutegiarena bera izango da. Ordutegi hori Udalak ezarriko du. Ordutegi hori, oro har, 10:00etatik 19:30 arte izango da. Ezarritako orduetatik kanpora ezingo da instalazio abonatua erabili.

3. Zerbitzu hori gozatzeko eskubidea izango dute ordenantza honen indarraldia hastean jadanik itzalkin baten erabiltzaile diren pertsonak.

Itzalkinen erabilera esleitzeko, zozketa publikoa egingo da, zerbitzua eskatu duten pertsona fisikoen artean. Zerbitzua eskatzeko, eskabide egokia aurkeztu behar da, behar bezala beteta eta horretarako ezarritako epearen barruan.

Itzalkina erabiltzeko denboraldiko abonamendua, pertsonala eta besterenezina da, eta ez da bat besterik onartuko bizikidetzaren unitateko.

Udalaren eskumena da pertsona elbarriei esleitzeko itzalkinak jartzea.

4. Abonatutako itzalkin bakoitzari dagokion ordainagiria eskatu ahal izango da, zerbitzuko enpleguak egoki baderitzo, instalazioa erabiltzeko alde aurreko baldintza gisa.

5. Berezitasun gisa, onartu egin ahalko da, orobat, abonamendua aldatzea, itzalkinen kokalekuari dagokionez.

6. Abonatuak eskubide izango dute itzalkinaren abonamenduari uko egitea. Uko hori udaldia hasi ondoren egiten bada, ez da ordaindutako tasaren zenbatekoa ordainduko.

7. Debeku dute abonatuak:

— Itzalkinaren erabilera beste pertsona bati lagatzea, prezioa dela tarteko.

Debeku hori ez betetzeak, abonamendua kentzea ekarriko du, inolako kopururik itzultzeko eskubiderik gabe. Gainera, dagokion zigorra ezarriko da.

— Adierazitakoak baino aulki gehiago erabiltzea, edo aulki horiek bere itzalkinetik urruti jartzea. Sekula ere ez dira bertan behera utzi behar uretatik gertu edo uraren barruan.

Debeku hori betetzen ez bada, Udalak itzalkinari dagokion abonamendua deuseztatu ahalko du. Hori eginez gero, itzalkin hori bere esku izango du, udaldia bukatzeko falta den denborari dagokion abonamendu parte proportzionala doakionari itzuli eta gero.

8. Udalaren esku dago, dagokien zerbitzuen bidez, eguraldia dela kausa zerbitzua etetea erabakitzea.

9. Abonatuaren betebeharra izango da, galernaren, ekaitzaren arriskua izanez gero, denbora gutxi izanik, euren instalazioa jasotzea, alde egin aurretik.

16. artikulua. Aulkien eta etzaulkien eguneroko zerbitzua.

1. Zurriolako, Kontxako eta Ondarretako hondartzetan, udaldian, aulkien eta etzaulkien eguneroko zerbitzua egingo da.

2. Zerbitzu horrek eskubidea emango du, dagokion kopurua ordainduz gero, ordutegi jakin batzuetan aulki bat edo besaulki bat gozatzeko. Aulkia eta besaulkia ezingo dira erabili ordutegi horietatik at.

3. Aulki zuriak denboraldiko abonamenduko itzalkinei dagozkie. Abonatu gabeko erabiltzaileek aulki horiek erabiltzea arau haustetzat joko da, eta dagokion zigorra ekarriko du.

4. Eguneroko zerbitzuko aulkiak urdinak edo antzeko kolorekoak izango dira. Salbuespen dira gertakizun bereziak (hala nola su artifizialak, hondartzako zinema, eta beste); horietan, aulki zuriak ere alokatu ahal izango dira.

5. Debeku da aulkiak ur ertzera edo ur barrura eramanez eta han uztea, bai eta berezko erabilera (esertzea edo arropa eta hondartzako fardelak uztea) ez den helburuetarako erabiltzea. Arau hau haustea, dagokion isunarekin zigortu ahalko da.

17. artikulua. Taldekako kabinen zerbitzua.

1. Kontxako eta Ondarretako hondartzetan, urte osoan, taldekako kabinen zerbitzua egingo da. Zurriolako hondartzan, udaldian egingo da zerbitzu hori; hala onartuz gero, urte osora luzatu ahalko da.

2. Zerbitzu horrek eskubidea ematen du, dagokion kopurua ordainduta, ur beroko dutxak erabiltzeko, bai eta arropa eta gauza txikiak gordetzearren giltza duen armairua erabiltzeko.

3. Zerbitzu horren ordutegiak jendaurrean erakutsiko dira, zorrotz betetze aldera, kabinen sarreretan.

Ixteko adierazita dagoen ordutik hamabost minutu igarota, jaso gabeko arroparen bat baldin bada, kabina

hori itxi egingo da, eta hondartzetako zerbitzuak ez du inolako erantzukizunik izango.

4. Aldageletara sartzeko gailua galduz gero, doakionak frogatu egin beharko du aldagelako armairuaren erabiltzailea dela. Horretarako, zerbitzuaren ardura duten langileei armairuaren edukiaz beharrezko datu guztiak emango dizkie, eta bere nortasuna egiaztatuko du.

5. Kontrataturiko kabina zerbitzuaren babesean, ez da onartuko armairuan kabitzen diren arropa eta objektu pertsonalak ez den ezer (etzaulkiak, aulkiak, taulak edo beste edozer).

6. Udalak, aurreko puntuan adierazitakoa gorabehera, beharrezko izanez gero eta kasuan kasu, toki bat gaitu ahal izango du pertsona elbarrien gauza pertsonalak gordetzeko, pertsona horiek hondartza erabiltzen ari diren aldirako eta kabinen ordutegiaren barruan.

7. Kabinen erabiltzaileen betebeharra da kabinen funtzionamendu egokirako ematen diren arauak erresperatzea.

8. Debeku da komunak aldagela gisa erabiltzea.

18. artikulua. Irisgarritasuna.

1. Hondartzan aparkatzeko eta zirkulatzeko berariazko baimena dute mugikortasun murriztuko pertsonentzako ibilgailu bereziek, bai eta itsasoko uretan horretarako bereziki eginikoak erabiltzea ere.

2. Zurriolako, Kontxako eta Ondarretako hondartzetan, bainu denboraldian, pertsona elbarriei hondartzak erabiltzea errazte aldera, eta haurtxoen kotxeak errazago ibiltzeko, Udalak gutxienez ere zaldain bat mantenduko du hondartza horietako bakoitzean (sarrera arrapalekin behar bezala konektatuta), bai eta elbarrientzat egokitutako aldagelak eta komunak ere. Era berean, mugikortasun mugatua gizabanakoek erabil ditzaten, aulki anfibioak edo bainatzea errazteko beste aparatu batzuk jarriko ditu.

3. Udalak gizarte boluntariora sustatuko du, pertsona elbarriei bainatzen laguntzeko.

VI. TITULUA

ZIGOR ERREGIMENA

LEHEN KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

19. artikulua. Arauak hausten dituzten jardueren ondorioak.

Ordenantza honi kontra egiten dion jardun orok hau ekar dezake:

1) Udalak beharrezko neurriak hartzea, hautsitako ordena juridikoa berriz ezartzearen eta legez kontrako jardunaren ondorioz aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzearren.

2) Legez kontrako jarduna ustez babesten duten administrazio egintzak eten eta iraungitzeko prozedurak abiatzea.

3) Erantzuleei diru zigorrak jartzea, aldeztetik zigor prozedura egokia izapidetuta. Gainera, arlo penalean ere izan daitezke erantzukizunak.

4) Erantzule deklaratuak direnen kontura kalte-galerak ordaintzeko betebeharra.

20. artikulua. Aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzea.

Udalak, zigor espediente egokia abiatu eta izapidetzeaz gainera, eragindako ondasunak legez kanpoko egoera gertatu aurretiko egoerara ekartzeko neurriak hartuko ditu. Neurri horiek gorabehera, egokitzen jotzen diren zigorrak ere ezarriko dira.

21. artikulua. Behin-behineko neurriak hartzea.

1. Zigor prozedura abiatuta, Udalak egoki deritzen behin-behineko neurriak hartu ahalko ditu, hartzen den ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko, horretarako aski judizio elementurik baldin bada.

2. Ezingo da doakienei konpontzen zail edo ezinezko diren kalteak eragin diezazkiekeen behin-behineko neurririk eman, ez eta legeek babestutako eskubideak urratzea dakarren neurririk ere.

22. artikulua. Zigor erregimena.

Udalaren zigor ahalmena honako hauetan ezarritakoak arautuko du: 1992ko azaroaren 26an onartutako 30/1992 Legeko (1999ko urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) IX. tituluan, 1993ko abuztuaren 4an onartutako 1.398/1993 Errege Dekretuan (zigor ahalmena erabiltzeko prozeduraren araua onartzen duena) eta ordenantza honetan ezarritakoak, alegia.

BIGARREN KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK

23. artikulua. Erantzuleak.

1. Ordenantza honetan tipifikatutako arau hausteen erantzule izango dira arau hauste horiek egiten

dituzten pertsona fisiko zein juridikoak.

2. Erantzukizuna eskatu ahaliko da, norberaren egite edo ez egiteengatik ez ezik, zuzenbide komunari jarraituz norberak erantzun beharreko pertsona, animalia eta ondasunen egintzengatik ere.

3. Zigor prozeduratik eratorritako administrazio erantzukizunak bateragarri izango dira araua hausten duenari berak aldatutako egoera jatorrizko egoerara itzultzeko galdatzearekin, bai eta eragindako kalte-galerak ordaintzearekin ere. Kalte-galera horiek, eskumena duen organoak zehaztuko ditu. Halakoetan, araua hautsi duenari jakinarazi beharko zaio, horretarako zehazten den epean ordain ditzan; ordaindu ezean, dagokion bide judiziala libre izango da.

24. artikulua. Arau-hauste motak.

1. Ordenantza honetako preskripzioak ez betetzeagatik administrazio arau-hausteak oso larri, larri eta arin mailetan sailkatzen dira.

2. Oso arau-hauste larriak dira hauek:

- a) Itzalkinaren erabilera beste pertsona bati lagatzea, prezioa dela tarteko.
- b) Preskribatzeko ezarritako epea burutu aurretik hutsegite larrietan berriro erortzea.

3. Arau-hauste larriak dira hauek:

- a) Hondartzetako zerbitzuko altzariak edo materiala nahita hondatu edo suntsitzea.
- b) Surfean, bodyboardean, piraguismoan eta antzekoetan aritzea, behar bezala balizatu edo seinaleztaturiko bainuguneetan.

c) Belaz nahiz motorrez mugitzen den edozein ontzi edo bitarteko flotatzaile erabiltzea, behar bezala balizatu edo seinaleztaturiko bainuguneetan.

d) Ibilgailuak baimenik gabe aparkatu eta zirkulatzea.

e) Preskribatzeko ezarritako epea burutu aurretik hutsegite arinetan berriro erortzea.

4. Arau-hauste arinak dira hauek:

a) Ordenantzako 8.2 artikuluko b), c), d), e), f), g), h) eta i) idatz zatiak ez betetzeagatik izan diren arau hausteak.

b) Zaborrak eta hondakinak, horretarako jarritako edukiontzi eta zaborrontzietatik kanpora uztea.

c) Zaborrontzietan objektu handiak sartzea, adibidez zerriak, itzalkinak, lastaira pneumatikoak, edo antzekoak.

d) Hondartzetako zaborrontzietan etxeko zabor poltsak edo saltokietako zabor poltsak sartzea (edozein motatako saltokia dela ere; bai hareatik kanpo dauden saltokiak, bai hondartzan bertan daudenak).

e) Bainu denboraldian txakurrekin edo beste edozein etxabererekin hondartzan sartzea.

f) Ordenantzako 14. artikuluko 1, 2, 3 eta 4. idatz zatiak ez betetzeagatik izan diren arau hausteak.

g) Aulkiak uretatik gertu edo uraren barruan bertan behera uztea.

h) Komunak aldagela gisa erabiltzea.

i) Ordenantza honetako beste edozein arau hauste, larria edo oso larria ez dena.

25. artikulua. Arau hausteak preskribatzea.

1. Arau hauste arinak sei hilabete igarotakoan preskribatuko dira; larriak, bi urte igarotakoan; eta oso larriak, hiru urte igarotakoan.

2. Arau hausteak preskribatzeko epea, arau haustea egin den egunetik zenbatuko da.

3. Preskripzioa eten egingo da zigor prozedura hasten denean, interesatuari jakinarazita. Gero, preskripzio epea berriz hasiko da, baldin zigor espedientea hilabete baino luzaroago geldu badago ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion arrazoiren bategatik.

4. Jarduera jarraitu batetik datozen arau haustean, zenbatzeko hasierako eguna izango da jarduera bukatu zenekoa, edota arau haustea burutzen duen azken egintzakoa.

HIRUGARREN KAPITULUA. ZIGORRAK

26. artikulua. Zigorrak.

Arau haustea den egite edo ez egite oro, haren larritasunaren neurriari dagokion isunarekin zigortuko da.

27. artikulua. Zigorren zenbatekoa.

1. Arau hauste arinak 50etik 200 eurora bitarteko isunarekin zigortuko dira.
2. Arau hauste larriak 201etik 500 eurora bitarteko isunarekin zigortuko dira.
3. Arau hauste oso larriak 501etik 3.000 eurora bitarteko isunarekin zigortuko dira.

28. artikulua. Zigorrak preskribatzea.

1. Arau hauste arinengatik ezarritako zigorrak urtebete igarotakoan preskribatuko dira; larriengatik ezarritakoak, bi urte igarotakoan; eta oso larriengatikoak, hiru urte igarotakoan.

2. Zigorrak preskribatzeko epea, zigorra ezartzeko ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunean hasiko da.

3. Preskripzioa eten egingo da egikaritze prozedura hasten denean, interesatuari jakinarazita. Gero, preskripzio epea berriz igarotzen hasiko da, baldin egikaritze prozedura hilabete baino luzaroago geldu badago arau hausleari egotzi ezin zaion arrazoiren bategatik.

Xedapen indargabetzailea.

Indargabetuta geratzen da Donostiako hondartzetan jendeak izan beharreko jokabidearen arauen eta hondartzetako zerbitzuen arautegia, Udalbatzak 1980. urtean behin betiko onartua.

Azken xedapena.

Ordenantza honen indarraldia, ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean hasiko da.